

JARDUERAK

Gure eguzki argia proiektua ondo funtziontu dadin, argi izan behar dugu zeintzuk izango diren egin beharko ditugun jarduera nagusiak. Azkenean, jarduera horiek dira gure balio-proposamena benetan betetzen lagunduko dutenak: argi jasangarriak eskaintzea, bezeroengana iristea eta haiekin harreman ona izatea.

Lehen jarduera handia ekoizpena izango da, nahiz eta gure kasuan ekoizpena ez den guztiz zerotik hasiko. Guk ez ditugu eguzki-panelak fabrikatuko, baina bai sistema osoa diseinatu, montatu eta instalatu. Hau da: material onenak aukeratu, argiak non eta nola kokatu erabaki, instalazioa egitea eta azken emaitza bezeroari ematea. Lan honek denbora eta antolaketa eskatzen ditu, baina gure proiektuaren parterik garrantzitsuena da.

Bestalde, ezin dugu ahaztu arazoen konponketa jarduera oso garrantzitsua izango dela. Argiteria publikoa da, eta noizean behin arazo txikiak agertuko dira: panel batek ez du ondo kargatzen, kable batek huts egin du, edo bezeroak aldaketaren bat nahi du. Horregatik, mantentze lanerako eta konponketetarako prest egotea beharrezkoa da. Bezeroari lasaitasuna ematen dio jakiteak gu beti prest egongo garela sistema ondo dabilela ziurtatzeko.

Azkenik, plataforma edo sareko jarduerak ere ezinbestekoak izango dira. Gure webgunea izango da informazioa emateko, eskaerak jasotzeko eta argazki edo azalpen bidez gure lana erakusteko modurik errazena. Horregatik, webgunea kudeatu, eguneratu eta sustatzea funtsezkoa izango da. Sare sozialetan ere presente egongo gara, bezero berrietara iristeko eta gure komunitatea pixkanaka handitzeko. Azken batean, online presentzia indartsu batek asko lagunduko digu ezagutzera ematen eta bezeroak erakartzen.